

ORMAIZTEGI. LEHENGO ETA GAURKO BEGIRADAK **argazki lehiaketa**

OINARRIAK:

- 1. Antolatzailea:** Ormaiztegi Udalak. Zumalakarregi Museoarekin Elkarlanean.
- 2. Parte-hartzaileak:** 16 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du (16 urtetik beherakoek guraso edo tutorearen baimena beharko dute).
- 3. Gaia:** Ormaiztegi. Lehengo eta gaurko begiradak.
- 4. Argazkiak aurkezteko prozedura:** Argazkiak 2017ko uztailaren 27tik irailaren 24ra bitartean aurkeztu ahal izango dira. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak JPG eta paper formatuan bidali beharko dira, gehienez A4 tamaina izan beharko dute. Argazkiak honako helbideetara bidali beharko dira:

A) Udal Liburutegia. Muxika Egurastokia 14, 20216 Ormaiztegi. Kartazalean, *Ormaiztegi. Lehengo eta gaurko begiradak* Argazki Lehiaketa jarri beharko duelarik eta barnean igorlearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta argazkien izenak agertu beharko dira.

B) kultura.ormaiztegi@gmail.com (jpg formatua 1MB gutxienez).

- 5. Epaimahaia:** Aurkezten diren argazki guztiak www.ormaiztegi.org eta www.zumalakarregimuseoa.eus web guneetan nahiz Zumalakarregi Museoko erakusketan ikusgai egongo dira, working progress baten bidez. Bertan bisitariarik aukera izango dute gustukoena bozkatzeko. Azken irabazleak Udaleko nahiz Zumalakarregi Museoko arduradunek osatutako epaimahaiak hautatuko ditu.

6. Sariak:

1. Saria: 200€ eta *Ormaiztegi. Lehengo eta oraingo begiradak* argazki oroigarria.

2. Oroigarria: Parte-hartzaile guztiei banatuko zaie *Ormaiztegi. Lehengo eta oraingo begiradak* argazki oroigarria.

- 7. Eskubideak:** Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Ormaiztegi Udalak eta Zumalakarregi Museoaren esku geldituko dira, egoki deritzon jardura eta formatuan argitaratu ahal izateko, beti ere irabazi asmorik gabe eta egilearen izen-abizenak aipatuz.

- 8. Onarpena:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean eta agertu daitezkeen edozein ustekaberen aurrean antolakuntzak erabakiko du, erabaki horren aurrean ezin izango delarik apelatu.